



Azpeitiko Udala

**AZPEITIKO KIROL-KLUBEK 2023-2024. DENBORALDIAN
KUALIFIKAZIO-TEKNIKOA GARATZEKO DIRULAGUNTZAK (24-
12D-2.A.3/2024KIKL)**

Kirola interes publikoko gizarte-jarduera da, pertsonak bete betean prestatzeko eta garatzeko, bizi-kalitatea hobetzeko eta norbanakoak eta gizartea ondo izateko lagungarria.

Aginte publikoek, bere eskumen-esparruaren barruan, eskubide hori behar bezala gauzatzea bermatuko dute. Horretarako, burutuko duten kirol politikak, besteak beste, printzipio hauek izango ditu oinarrian; kirol-elkarteak bideratzea eta sustatzea, bai eta kirol arloko antolakuntza-egitura pribatuak onartzea eta babestea; lehiaketa-kirola bideratzea eta sustatzea (2/2023 Legea, martxoaren 30ekoa, Euskadiko Jarduera Fisikoaren eta Kirolarena) eta Udalak eskumen propioa du osasun publikoa sustatzea, kudeatzea defendatzea eta babestea, baita kirola eta kirol jarduerak antolatzeke eta sustatzeko ere (Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 17.1.10 eta 17.1.19 artikulua).

Azpeitiko Udalak 2024ko maiatzaren 13ko Alkatetzaren Dekretuaren bidez 2024ko dirulaguntzen deialdia arautzen duten **oinarri arautzaileak** ezarri zituen, GAOn maiatzaren 23an argitaratuak, eta dirulaguntza horien artean Azpeitiko kirol-klubek 2023-2024 denboraldian/2024.urtean kualifikazio-teknikoa garatzeko dirulaguntzak jasotzen dira.

Dirulaguntza horien emakida 2.A.3. eranskinean jasotako oinarrietan arautzen da, eta horientzat konkurrentziatzko emakida-prozedura aurreikusten da oinarrietan. Dirulaguntza hauen helburua kirol klubek beren kualifikazio-teknikoa garatzea lortzea da, kirol formazio ikastaroen bitartez.

Eskaerak aurkezteko epearen baitan bi kirol-klubek dirulaguntza eskaerak jaso dira, eta amaitutako formazio ikastaroen gastuak egiaztatzeke justifikazioa aurkeztu dute.

Kirol sailak eskaerak ebaluatu ditu oinarri arautzaileetan ezarritako balorazio-irizpideen arabera, eta ebaluazio-txostena aurkeztu du kirol batzordean. Bestalde, eskatzaileek dirulaguntzaren onuradun izateko baldintza guztiak betetzen dituztela bermatu da, zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzakoak barne.

Hori horrela, udal kirol-batzordeak 2024ko abenduaren 20an egindako ohiko bilkuran, oinarri arautzaileetako irizpideen baitan, ebazpen proposamena egin dio alkatetza honi.

Hala, dagokion aurrekontuan behar adinako kontsignazioa badagoela kontuan izanda 1.0500.481.341.00.02 2024 *Transf. arruntak Kirolak* partidan, eta eskumenari dagokionean Toki Erregimeneko Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1.f) artikuluan dioena jarraituz, **ERABAKI DUT:**

Kirol-Klubek egin dituzten kirol formazio ikastaroak laguntzeko 2024. ekitaldiko



Azpeitiko Udala

dirulaguntza deialdian aurkeztu diren eskaerak ebaztea, eta hurrengo taulan jasotako kopuruak **onartzea** eta **ordaintzea**, Kirol Batzordeak egindako ebazpen proposamenaren arabera:

Espedientea	2023-2024 denboraldia/ 2024.urtea	Udal dirulaguntza
2024KIKL0004	Lagun-Onak Futbol taldea	900,00€
2024KIKL0006	Ikaberri Kirol Elkartea	618,75€
	GUZTIRA	1.518,75€

Dirulaguntzen ordainketa 2024ko aurrekontuan dagoen honako gastu partidatik egingo da: 1.0500.481.341.00.02 2024 *Transf. arruntak Kirolak*.

Onuradunek beharrezkoa izango dute laguntzaren justifikazioa aurkeztea ebazpena argitaratu eta 10 egun naturaleko epean. Horretarako, jasotako funtsen aplikazioa justifikatzen duten agiriak aurkeztu beharko dituzte, dokumentu elektronikoak barne, egiaztapen- eta kontrol-jarduketan xede izan baitaitezke.

Alkatetzaren erabaki hau Udalaren Iragarki taulan eta web orrian argitaratuko da eta baita Estatuko diru-laguntzen datu basean ere. Modu berean, argitaratzen den egunean bertan, Udalak abisu bat bidaliko die erakunde eskatzaile guztiei, posta elektronikoz, ebatzitako laguntzen berri emateko.

Erabaki hau behin betikoa da eta amaiera ematen dio administrazio bideari. Erabaki honen aurka, administrazio auzi errekurtsua aurkez dezakete interesatuek zuzenean Donostiako administrazioarekiko auzietako epaitegian. Horretarako, bi hilabeteko epea dute, jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita. Hala ere, aukera dute horren aurretik berraztertzeko hautazko errekurtsua aurkezteko alkate honi hilabeteko epean.

Azpeitia, 2024ko abenduaren 27a



Nagore